

EUSKALTZAINDIA ISRAELEN

1990-XII-20

Jean Hariitschelhar
euskaltzainburua

1990.eko urriaren 13tik 16ra Kyriat Anavim deitutako Kibutzeko hotel batean, Jerusalemetik hamar kilometrotan bildu da “Internacional Conference on Language Revival” hebraiera modernoaren mendeurrenaren ospatzeko.

Euskaltzaindiaren izenean Kongresu horretara joan naiz eta enekin Josean Urdangarin jauna Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren izenean. Kongresuaren partaide ziren munduko ikerlari eta irakasle asko. Hona erresuma guzien zerrenda: Israel, Estatu Batuak, Kanada, Frantzia, Irlanda, Neerlandia, Polonia, Finlandia, Lituania, Ingalaterra, Zelanda Berria, Mexiko.

Goizetan denentzat emana zen mintzaldi bat eta gero hiru zatitan biltzen ziren taldeak goiz eta arratsaldez. Arratsalde apalean talde guzien aintzinean bigarren mintzaldi bat.

Lehen egunean talde batean Josean Urdangarin-ek irakurtu du ingelesez bere txostena: “Collection of data for language planning map” deitutakoa, erakusten zuela zer zen Euskal Komunitate Autonomoko egoera. Gero irakurtu du ezin etorria zen Mirari Alberdi-ren txostena, hori ere ingelesez: “The role of the royal Academy of the Basque language in the basque language revival”. Jakinarazi du zer den Euskaltzaindia eta zer diren Euskaltzaindiaren proiektuak.

Niri tokatu zait arratsalde apaleko mintzaldia Kongresu osoaren aintzinean. Frantsesez egin dut. “Dialectes et standardisation: le cas de la langue basque”. Erakutsi dut zer diren Euskal Herriko euskalkiak eta nola jokatu den Euskaltzaindia euskara batuaren bidean sartzeko. Aipatu ditut lehenbiziko urratsak, Euskaltzaindiaren sorrera, Campion-Broussain euskaltzainen txostena, gipuzkera osotua. Bigarren zati batean erakutsi dut zer izan den Arantzazuko Biltzarra eta ukan dituen ondorioak Bergarako Biltzarra artio, ortografiaren, deklinabidearen, erakusleen, aditzaren bateratzea, zer izan ziren orduko eztabaidak eta nola gehienek onartu zituzten Euskaltzaindiak emanikako proposamenak, bereziki eskola eta ikastoletan, Unibertsitatean, idazleen artean, aldizkarietan, administrazioan eta nola Euskadiko eta Nafarroako Gobernuek bermatu zituzten. Gero aipatu ditut